

“LAUDATO SÍ”REN HAMAR AGINDU BERDEAK

“Laudato sí” entziklikaren mezu nagusiak, Frantzisko Aita Santuagandiko “hamar agindu berde honeetan” laburtu geinkez.

Hona hemen:

1. Lurra, gu guztion etxea, arriskuan dago. Arduratu beharrean gagoz.
2. Entzun daigun behartsuen oihua, gu guztion etxearen krisiaren neurritz kanpoko biktima dira eta.
3. Berraurkitu mundu naturalaren teologia aldetiko ikuspegia. Izan bere, degradazio ekologikoa krisi espiritual sakonaren sintoma eta seinale da.
4. Baieztatu eta onartu kreazioaren kontrako abusua benetan pekatu ekologikoa dala.
5. Autortu eta onartu guztion etxearen krisiaren giza sustrai sakonenak.
6. Jorratu eta garatu erabateko eta osoko ekologia, guztiok izan gaitetzan alkarregazko erlazinozko eta alkarregazko menpeko.
7. Ikasi modu barri bat gu guztion etxean bizi izateko eta guztion etxea gobernatzeko era arduratsugoz, ekonomia barri baten bitartez.
8. Hezi uritartasun ekologikoan, bizitzeko moldeen aldaketan bitartez.

9. Besarkatu espiritualtasun ekologikoa, beronek Jainkoaren kriatura guztiakazko komuninoa bideratu daian.

10. Jorratu eta landu birtute ekologikoak: gorespena, esker ona, ardura eta kargu hartzea, justizia, lana, neurritasuna eta apaltasuna.

“Laudato sí”ren hamar agindu berde honeek hobeto ulertu ahal izango doguz “ikusi-epaitu-ekin” metodologiaren haritik aztertzen badoguz.

Lehenengo hiru agindu berdeak “IKUSI” egin gura dabe gu guztion etxearen egoera larria.

Hurrengo hirurak aztertu eta “EPAITU” egin gura dabe egoera larri hori. Frantzisko Aita Santuarentzat krisi ekologikoa benetan da “krisi sozioambiental bakarra eta korapilatsua” (139).

Azken lau agindu berdeak “EKINTZARA” bultzatzen gaitue, gu guztion etxearen krisi sakona ikusi eta aztertu ostean.

JAGON DAIGUN ARDURAZ GUZTIONA DOGUN ETXEA!!!

Lontzo Zugazagak